



**Arartekoaren ebazpena, 2012ko martxoaren 28koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailari gomendatzen zaio espedienteak abian jar ditzala bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzea eskatzeko, indarrean dagoen araudia betez.**

### Aurrekariak

1. Kexagileak, (...), bere emazte (...) batera, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen du. Prestazio hori aldatu egin zuten, 2011ko abenduaren 9ko ebazpenaren bitartez, aldaketa bat egon baitzen bizikidetasun-unitateak zituen baliabide ekonomikoetan. Aldaketa horrek atzeraeragina duenez gero, ebazpen-idazki beraren bidez jakinarazi zioten 340,80€-ko zorra sortu zuela, bidegabeki jasotako zenbatekoen ondorioz.
2. 2012ko otsailaren 1ean Ararteko erakundeak informazioa eskatu zion Arabako Foru Aldundiari, jakin nahi baitzuen zehazki zergatik aldatu zioten diru-sarrerak bermatzeko errenta, eta zer izapide egin ziren bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzeko espedientea hasteko.
3. Martxoaren 5eko idazkiaren bitartez jaso genuen erantzuna. Bertan, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailak aldaketa hori justifikatu zuen, baina ez zuen aipatu zer izapide egin zituen bidegabeki jasotako zenbatekoen itzultzea burutzeko. Hauxe bakarrik adierazi zuen: *"Por todo ello, con fecha 09/12/2011 la Dirección Gerencia del Instituto Foral de Bienestar Social dicta una resolución fijando la cuantía en concepto de prestación "Renta de Garantía de Ingresos" en la cantidad de 374,98 € con efectos desde el 1 de octubre de 2011, ya que se habían modificado los recursos que sirvieron de base para el cálculo de la prestación. Con motivo de dicha modificación se genera una deuda por cobro indebido de 340,80 €, cantidad que se le está compensando descontándole el 30% de la cantidad que tiene reconocida de la prestación Renta de Garantía de Ingresos"*.

### Gogoetak

1. Prestazio horiek erregulatzen dituen araudiak argi bereizten ditu prestazioak aldatzeko (edo, bestela, eteteko edo iraungitzeko) prozedura, alde batetik, eta bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzeko prozedura, bestetik. Hala, diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko 147/2010 Dekretuak zenbateko horiek eskatzeko jarraitu beharreko prozedurari eskaini dio VI. kapitulua, *"jaso behar ez ziren prestazioak itzultzea"* izenekoa (56-58. artikulua).



Zehatz-mehatz, 147/2010 Dekretuaren 57. artikulua zera xedatu du lehenengo paragrafoan: *“Aurreko artikuluan aurreikusitako edozein kasutan (arrazoi horren ondorioz zorra sortu dezaketen arrazoien aipamena eginez), dagokion foru-aldundiak jaso behar ez zirela jasotako prestazioak itzultzeko prozedura hasiko du”*. Bigarren paragrafoan, berriz, jarraitu beharreko izapideak zehaztu dira: *“Prozedura hasitakoan, foru-aldundiak ondokoak jakinaraziko dizkio titularrari: prozedurari hasiera eman zaiola, oinarritzat dituen arrazoiak, izan ditzakeen ondorio ekonomikoak, ebazteko eta jakinarazteko epea, eta 58. artikuluan ezarritako epean berriazko ebazpenik ezaren ondorioak. Interesdunek, hilabeteko gehieneko epean, egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin ahalko dituzte”*. Aipatutako 58. artikulua, lehenengo paragrafoan, foru-aldundiek itzultzeko prozedura amaitzeko daukaten gehieneko epea ezarri du: *“Itzultzeko prozeduraren ebazpena emateko eta ebazpen hori jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, prozedurari hasiera ematen zaienetik. Epe hori esanbidezko ebazpenik eman eta jakinarazi gabe muga eguneratzen bada, prozedura iraungi egingo da, eta hori adierazten duen ebazpenak jardunak artxibatzea aginduko du”*.

Beraz, legegileak argi eta garbi bereizten ditu, alde batetik, prestazioen aldaketa adierazteko jarraitu beharreko prozedura eta, bestetik, bidegabeki jasotako zenbatekoak eskatzeko jarraitu beharreko prozedura.

Orduan, erakunde honen iritziz, ez dago arrazoirik prozedurako arauak ez ezartzeko; izan ere, gogoan izan behar dugu arauok arautzen dutela gizarte-prestazioak jasotzen dituztenei eta, hortaz, gizartean baztertuta edo baztertuak izateko arriskuan daudenei zorra sortu dela jakinarazteko bidea. Alor horretan hain zuzen ere, administrazioek zintzo aplikatu behar dituzte araudian xedatzen diren bermeak. Araudian alegazioak aurkezteko epe bat xedatuta dago, besteak beste (147/2010 Dekretuaren 57.2. artikulua), bai eta administrazioak ebazteko daukan epea ere (147/2010 Dekretuaren 58. artikulua). Halaber, zorra sortu dela jakinaraziz gero, araudiak, beste berme batzuen artean, hileko itzulketen kopurua eta zenbatekoa xedatu ditu (147/2010 Dekretuaren 57.4. artikulua).

Aipatutako araudiak ez duenez kasu horietarako prozedura laburturik aipatzen eta legegileak dekretuen kapitulu zehatzak okerreko kobrantzei eskaintzea erabaki duenez, erakunde honek uste du ez dagoela arrazoirik legegileak argi bereizi dituen bi prozedura bateratzeko, araudiaren ezein puntutan xedatu gabeko prozedura laburtu bat ezarriz eta, beraz, larriki murriztuz legeriak gizarte-prestazioen hartzaileei eskaintzen dizkien bermeak.



2. Bidegabeki jasotako prestazioak itzultzeko prozedurak, 147/2010 Dekretuaren VI. kapituluan araututa dagoenak, bermeak ezartzen ditu; izan ere, prozedura horren hasiera jakinarazi behar dela xedatzen du, arrazoiak eta interesgarriak diren gainontzeko datuak adieraziz, hala nola ondorio ekonomikoak edo ebazteko epea. Horrez gain, epe bat ezartzen du eragindakoek alegazioak aurkez ditzaten eta zenbatekoak bidegabeki jaso diren ala ez erabakitzen duen ebazpenak nahikoa arrazoitua egon behar duela dio.

Edonola ere, okerreko kobrantzak egon direla adierazten duen ebazpenak berriaz jaso beharko du dagozkion zenbatekoak itzultzeko betebeharra, eginbehar hori betetzeko epea ezarriz eta itzulketen kopurua eta zenbatekoak zehaztuz (ezarritako gehienezko muga % 30ekoa da, "*titularrak zentzu horretan beste nahi bat adierazi ezean*").

Foru administrazio horrek ebazpen bakarra eman du, eta bertan erabaki da bai diru-sarrerak bermatzeko errenta aldatzea, bai bidegabeki jasotako kopuruak itzultzea ere. Jarduera hori ez dator bat 147/2010 Dekretuaren VI. tituluko bermekin. Administrazioak jarduera hori berraztertu beharko luke prestazioak itzultzeko eskaeraren ondorioz eragindako pertsonari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen IV. kapituluan ezarritakoarekin bat eginez, eta baloratu beharko luke araudian aipatutako baldintzak ez betetzeak interesdunaren babesgabetasuna eragin duen. Hala bada, dagokion moduan jokatu beharko du.

Edonola ere, etorkizunean araudiaren bidez ezarritako prozedura zintzo errespetatu beharko du, batez ere, eragindako pertsonak bereziki zaugarria den kolektibo bat osatzen dutela aintzat hartuta.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak – erakunde hau sortu eta arautzekoak – 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **49/2012 GOMENDIOA, martxoaren 28koa, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailari egina**

Etorkizuneko ebazpenetan, oker jasotako zenbatekoak itzultzeko espedienteak hasten dituenean, gizarte-prestazioa aldatzeko ebazpenetik bereiziz egin dezala, 147/2010 Dekretuak VI. kapituluan ezarritakoaren arabera.